

DSaren barneko zenbait ordena kontu

Oyharçabal, Beñat

(IKER, CNRS)

In B. Fernandez & I. Laka (arg.) *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo, 2006, 741-756)

Abstract

Euskarako DSen barneko osagai batzuen arteko ordena franko gogorki finkatua da. Adjektiboak gehienean bederen izenaren eskuin aldean, erakusleen aitzinean, kokatzen dira, zenbatzaileek, aldiz, izenaren ezker aldean egon behar dutelarik. Adjektiboak, bestalde, metatzen direnean, halako ordena markatugabe batean agertzen dira, eta kasu honetan oposaketak agerian ematea erraza ez bada ere, ordena markatugabe hori da adjektiboak izenaren ezker aldean dauzkaten hizkuntzetakoaren alderantzizkoa (Sproat & Shih 1988; Scott 2002), hots, haren mirail-irudia. Tipologiako datuak kontuan izanik, ordena kontu horiek ikertzen dira artikuluan, Kayneren (1994) antisimetriaren bidetik, eta DSaren funtzio egituraren hierarkia unibertsal batetik (Cinque 1999) abiatuz. Erakustera ematen da aipatu datu horiek egokiro azal daitezkeela DS barneko mugimenduak sintagmak bata besteari eratzikirik espezifikatzailetarik iganaraziz obratzen badira, hala nola proposatua izan baita beste zenbait hizkuntzarentzat (Fassi Fehri 1999; Cinque 2005; Aboh 2004; Shlonsky 2004).

0. Sarrera.

Gauza ezaguna da Greenberg-en (1963) lanaz geroztik hitz ordena kontuek berezikiko garrantzia izan dutela tipologia lanetan. ISen egiturari dagokionez, bat baino gehiago izan dira baliatu diren lan hartako orokorketak, hala nola, beste batzuen artean, ikerketa honetan bereziki aipatuko den 20. unibertsala. Gogora dezagun zer dioen honek:

When any or all of the items (demonstrative, numeral and descriptive adjective) precede the noun, they are all always found in that order. If they follow, the order is either the same or its exact opposite. (Greenberg 1963 [1966: 87])

Greenbergek izenaren inguruko zenbait modifikatzailearen arteko (adjektiboa, erakuslea, zenbatzailea) ordenaz egin orokorketa honen arabera, zenbait muga, franko zorrotzak, agertzen dira hizkuntzetan. Adibidez, izena sintagma hastapenean izanik, lau osagai baliaturik matematikoki era daitezkeen sei ordenetarik bat baizik ez da aurkitzen hizkuntzetan. Izena sintagmaren azken posizioan daukaten sintagmen kasuan, berriz, sei aukeretarik biga dira hizkuntzetan baliatuak Greenbergen orokorketaren arabera. Horrela, izena tarteko posizio

batean duten sintagmak kontuan hartzen ez badira, hamabi ordena posibletarik (6+6), hiru baizik ez litezke aurki hizkuntzetan:

- (1) a. Erak > Zenb > Adj > IZ¹
- b. IZ > Erak > Zenb > Adj
- c. IZ > Adj > Zenb > Erak

Greenberg-en proposamenaren egokitasuna eztabaidatua izan da ondoko hamarkadetan (besteak beste, Hawkins 1983; Dryer 1988 1992; Croft & Deligianni 2001; Aboh 2004; Cinque 2005), eta IZ azkenean duen ordenari buruzkoa osoki berretsia izan bada (hots, (1a) aukera bakarra dela, nahiz matematikoki 6 eraketa desberdin molda daitezkeen),² ez da hala gertatu IZ lehen posizioan duten ordenen kasuan. Greenbergekin bi baizik ez zituen haizutzen (1b,c), baina murrizketa hau makurra zela erakutsi dute ondoko ikerketek. Adibidez, 150 hizkuntzatarako datuak ikerturik, Hawkinsek (1983) atera izan zuen ondorioa izan zen, kasu horretan, erran nahi baitu IZaren ondoko adjektiboaren artean, ordena guztiak posible zirela eta ezin egin zitekeela haietaz predikziorik; ikus halaber Dryer (1988) eta Croft & Deligianni (2001), baina, bestalde, Cinque (2005), zuzenketa hauek ber-aztertzen eta osatzen dituen.

Ikerlan honen helburua da tipologiako datuen argian eta gaurko hizkuntzalaritzako zenbait ikerbide nagusiren ildotik euskarako DSetako ordena kontu batzuen azaltzea. Hiru ataletan partekatua da azterketa. Lehenean, Greenbergen 20. unibertsalean aipatzen diren elementuak (Adj, Erak, IZ, Zenb) euskarari zer ordenatan agertzen diren ikertuko dugu, erakustera emanez bereziki adjektiboek eta erakusleek izenaren eretzean hartzen duten posizioa deusetan ez dela lotua O/A ordenarekin, hots, oker zela buruaren eta dependentearen arteko ordenaren eragina elementu horietan ere ager zitekeelako ustea (Greenberg 1963; Lehmann 1973; Vennemann 1974). Ondotik, bigarren atalean, ikusiko dugu zer gisaz Cinqueren (1999, 2005) DSaren funtzio egitura unibertsal bakar batetik abiatuz, eta Kayneren (1994) *Linear Correspondance Axiom* (LCA) delakoaren baldintzei jarraikiz, euskarari kausitzen den ordena era daitekeen. Horretarako agerian ezarriko dugu IZaren burutik bururako mugimendu batek

¹ > ikurrak agerpen-ordena adierazten du (ez baitezpada hierarkia ordena). Horretaz, A > B irakurtzen da A B baino lehen. Bestalde, glosetarik kanpo testuan erabili laburdurak hauek izanen dira: A: aditza; Adj: adjektiboa; Erak: erakuslea; IZ: izena; KMZ: komunztadura; O: objektua; XS: Xsintagma; Zenb: zenbatzailea (numeral). Bestalde, usaiako akronimoak baliatzen dira, erran nahi, baitu IS: izen sintagma eta DS: determinatzaile sintagma. Kanpoko hizkuntzetako adibide aipuen bidez ekarrietan, aldiz, jatorriko testuko glosak eta laburdurak, erabiliko ditut. Azkenik, seinala dezadan *adjektibo* hitza hizkuntzalaritzan egiten ohi den maneran erabiliko dudala, eta ez EGBaren (1984) eran, iduritzen baitzait nahasbide gutiago sortzen duela jokabide horrek hau bezalako lanetan (cf. Zabala 1999)

² Croft & Deligianniren arabera (2001) hizkuntza bat, Alablak, salbuespena izan daiteke, hartan ordena erregularrarekin batean Erak > Adj > Zenb > IZ ordena ere erabiltzen baita.

ezin eman dezakeela euskarari dagokion ordena, baina bai ordea sintagmak bata besteari eratxekirik (snowballing movement) espezifikitzaileen guneetarik goititzen dituen operazio batek. Hirugarren partean, adjektibo metatuen ordena aipatuko dugu. Gai hau, ikusiko dugun bezala, guti erabilia izan da orain arte euskal ikerketetan edo gramatiketan. Nahiz datuak ez diren beti nahi bezain finka errazak, ikusiko dugu adjektiboaren ordenari buruzko hierarkia unibertsal batetik abiatuz (Scott 2002) bigarren atalean aipatu sintagma-igoera mota berak erator ditzakeela ordena markatugabeak.

1. Hitz ordenari buruzko tipologia eta adjektiboaren eta erakusleen tokia euskaraz

Greenbergen 20. unibertsalari dagokionez, euskarak eskaintzen dituen datuak guztiz argiak dira : lau elementuak biltzen dituen sintagma bat eratuz gero aukera bakarria baitugu:

(2) lau sagar gorri haiek

(2)ko adibideko osagaiak beste edozein ordenatan emanez gero, sintagma gaizki eratua aterako zaigu: **sagar lau haiek gorri*; **haiek sagar lau gorri*; *gorri lau sagar haiek*; etab. Hitz batean, lau osagaiko sintagma batean matematikoki 24 sintagma desberdin era daitezke, baina euskarak bat bakarrik onartzen du, adibidean aurkitzen dena hain zuzen, eta (3)ko ordenan gorpuzten dena:

(3) Euskararen aukera Greenbergen 20. unibertsalari buruz:

Zenb. > IZ > Adj > Erak.

Nahiz eztabaidarik ez dugun horretan, komeni da, menturaz, IZaren eskuin aldean agertzen diren bi modifikatzaileen posizioaz hitz bat erratea.

Salbuespen batzuk bazterrean uzten baditugu adjektiboaren tokia euskaraz IZaren eskuin aldean izaten da:

(5) gizon handi / luze / beldurgarri bat vs **handi / luze / beldurgarri gizon bat*

(5)ean ikus daitekeenaz, orokorki, adjektiboak IZaren ezkerrean ezin ager daitezke euskaraz. Denbora batez, Greenbergen (1963) ildotik, pentsatua izan da tipologiaren aldetik paralelismo hauste bat bazela puntu horretan, euskara O > A hizkuntza izanik Adj > IZ hizkuntza ere izan behar zela uste baitzen (Lehmann 1973; Vennemann 1974).

Ordea, Greenbergi (1963) jarraikiz, Hawkins (1983) eta Dryerrek (1988 1992) hizkuntza askoren datuak ikertuz argiki erakutsi zuten aburu okerrean finkatua zela ustezko paralelismo tipologiko hau, datuek ez baitzuten horrelakorik erakusten. Hona, adibidez, Dryerrek (1992)

nola zenbatzen dituen hizkuntzak A/O eta Adj/IZ ordenak korrelazioan agerrarazirik (eta hizkuntzen area barreiaketa kontuan harturik ere, badaezpada area efektuaren eraginari neurria hartzeko gisan):

(6) A / O eta Adj / IZ ordenen arteko korrelazioak (Dryer 1992, 17. taula)

	AFRIC.	EURAS.	SEAS&OC.	AUS-NEWGUI.	N.AMER.	S.AMER.	TOTAL
OV & ADJN	07	24	02	04	10	08	55
OV & NADJ	18	04	05	15	18	14	74
VO & ADJN	03	06	04	05	19	03	40
VO & NADJ	25	03	12	02	08	05	53

Dryerrek bere taula aztertutik ateratzen duen ondorioa ezin izan zitekeen bestelakoa: korrelazio lehenetsirik ez da A/O eta IZ/Adj ordenen artean.³ Ikus dezakegu euskarak eskaintzen duen ordena korrelazioa (OV & NAdj (6) taulan) zenbatu 222 hizkuntzen artean maiztasun handienekoa dela (%33). Erran gabe doa tipologiarengatik korrelazio lehenetsirik balitz, Lehmannek edo Vennemannek proposatu bezala, horrelako daturik ezin atzeman genezakeela.

Erakusleari dagozkion datuak adjektiboarekin aurkitu bezalatsukoak dira, hots, ez dirudi A/O eta IZ/Erak ordenen artean korrelazio lehentsirik baden.

Ikus dezagun ondoko taula, hartan posible diren lau korrelazioak zein proportziotan aurkitzen diren ikus baitaiteke:

(7) A/O & Erak/IZ ordena korrelazioak (Dryer 1992, 19. taula)

	AFRIC.	EURAS.	SE.As&OC.	AUS-NEWGUI.	N.AMER.	S.AMER.	TOTAL
OV & DemN	10	20	04	10	22	13	79
OV & NDem	11	01	02	09	05	04	32
VO & DemN	04	08	07	05	20	09	53
VO & NDem	23	01	11	00	07	01	43

Tipologia lanetan Erak/IZ bikotean IZ jotzen ohi da buru gisa. Beraz, burua eskuin aldean daukaten hizkuntzetan O > A ordenarekin batean Erak > IZ ordenak ere nagusitu behar luke burua dependentearen eskuin aldean ematen duen ezaugarri horrek eraginik balu DSaren egituran. Ordea, euskarak daukan ordena bestelakoa izanik, nolabait tipologikoki markatua eta doi bat bakartua agertu behar luke. Bizkitartean, ez da hala gertatzen, ezen, adjektiboekin

³ Ez uste izan O eta Aren arteko ordenei sekula ez dagokiela korrelaziorik DSkos osagaien arteko ordenan. Adibidez, erlatiboen (Erl) eta IZaren arteko ordenarekin edo genitiboaren eta IZren artekoarekin korrelazioa garbia agertzen da (Dryer 1992; Croft & Deligianni 2001). Horrela hizkuntza batek Erl > IZ ordena badu, O > A ordena ere izateko probabilitate handia du (26 hizkuntza 27tarik Dryerrek eskaintzen dituen zenbaketetan); alderantzizkoa, haatik, ez da gertatzen, zeren O > A hizkuntzetan maiztasun handikoak baitira IZ > Erl ordena dutenak (37 hizkuntza, 63tarik, Dryerren zenbaketetan). Korrelazio negatiboa da, beraz: A > O ordenako hizkuntzek nekez onartzen dute Erl > IZ ordena.

bezalaxe, hemen ere ageri da euskarak duen korrelazioa arrunta dela, $O > A \& IZ > Erak$ ordena maizkoena ez bada ere, aski handia baita (32 hizkuntza, erran nahi baitu %15 (7)ko taulako 207 hizkuntzen artean).⁴

Ikus daitekeenaz, erakuslea eta adjektiboa IZaren eskuin aldean agertzea ez da deusetan arraro $O > A$ ordena duten hizkuntzen tipologiaren aldetik.

2. Adjektiboaren eta erakuslearen arteko ordena : mirail irudia nola erdiets

Kontsidera dezagun orain gorago aipatu bi modifikatzaileen arteko ordena. Euskaran Adj $>$ Erak ordena ezin bestekoa da, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (8) a. *liburu zahar hauek*
 b. **liburu hauek zahar*

Kontuan izan, IZaren eskuin aldean modifikatzaileen arteko ordena guztiak haizu direla dioten tipologia lanen arabera (Hawkins 1983, Dryer 1988 1992; Croft & Deligianni 2001) arbitrarioa dela (8)ko kontrastea. Bizkitartean, Cinquek (2005) tipologia lanetako orokorketaren kontra joanik, azpimarratzen du ez dela hala eta, egiazki, (8b)ko ordena ($IZ > Erak > Adj$) ez dela aurkitzen zenbatzailea IZaren ezker aldean duten hizkuntzetan.⁵ Gauzak horrela badira, ezintasun horren berri eman beharra da.

Sarreran erran dugun bezala, hemengo ikerketa Kayneren (1994) antisimetriaren ildotik bideratua da. Dakigunaz, honi jarraikiz, eskuin alderako mugimendurik ezin gerta daiteke gramatika erabideetan, eta espezifikatzaile/adjuntu gune bakarra da islapenetan. Beraz, mugimenduak ezker alderako igoerak baizik ezin izan daitezke, edo buru mugimenduak, burutik burura eramanak, edo, sintagma mugimenduak, espezifikatzaile gunez baliaturik gora doazenak. Bestalde, Cinquek (1994, 1996, 2005) finkatu DSen funtzio egituraren hierarkia unibertsala ere onartzen dugu, hemen darabilgun kontuarentzat behintzat, indar handia ematen baitiote tipologia lanetan finkatu hizkuntza konparaketako datuek. Izan ere, Cinquek proposatzen duen DSaren oinarritzko ordena unibertsalean, IZ azken posizioan da (aztertzen ari garen elementuen artean), erran nahi baitu Greenbergen orokorketaren parte

⁴ Irakurleak kontuan har beza area efektu garbiak kausitzen direla. Horrela, Eurasian eta Amerikan argi da korrelazioa agertzen dela, ez ordea Afrikan eta Australia-Ginea Berrian.

⁵ Kilivila salbuespena ote den galdatzen du halere Cinquek (2005) ohar batean, Senft 1986:105 aipatuz. Antza denaz, hizkuntza horretan IZ bukaeran duen ordena arrunta aurkitzen bada ere, $Num > IZ > Erak > Adj$ ordena ere kausitzen da modu arruntean. Datua halakoa bada, salbuespen arazotsu gisa agertzen da Cinqueren azterbidearentzat, Adj erlatibo batetik eratoritzen ez bada behintzat.

berretsiari dagokiola. Gogora gaitezen Greenbergen 20. unibertsalaren parte horrek dioela IZ aurreko modifikatzaileak Erak > Zenb > Adj ordenan ematen direla beti; hain zuzen hori da, hemengo azterketarentzat munta duten elementuetan geldituz, Cinquek proposatzen duen oinarrizko ordena unibertsala, erran nahi baitu (9)koa:

(9) Erak > Zenb > Adj > IZ

(9)ko ordena hori maiz aurkitzen da hizkuntzen artean; adibidez, ingelesez erabiltzen da, baita frantsesez ere izenaren aurretik doazen zenbait adjektiborekin bederen:

(10) These three big dogs

(11) Ces trois gros chiens

Ordea, beste hizkuntza asko badira bestelako ordena dutenak, horien artean euskara. Nola bada azal bestelako ordena horiek (9)ko egituratik abiatu eta ezkererako igoera baizik ez onartuz?

Beha dezagun zer gertatzen den euskararen eta honek bezalako ordena duten hizkuntzetan,⁶ gogoan izanik, bi igoera mota berezi ditugula: edo buru baten burutik bururakoa, edo sintagma igoera bat espezifikatzaile guneetarik doana.

Buruz buruko igoeraren bidez nekez azal daiteke euskarako ordena. Izan ere, horrelako igoera batekin IZari doakionaz kanpo oinarrizko ordena ez da kanbiatzen.⁷ Ikus ditzagun oinarrizko egituratik abiatu (12a), zein diren buru-mugimenduak sortzen dituen aukerak (12b,c,d):⁸

- (12) a. Erak > Zenb > Adj > IZ
 b. Erak > Zenb > IZ > Adj
 c. Erak > IZ > Zenb > Adj
 d. IZ > Erak > Zenb > Adj

(12b,c,d)ko aukerak aurkitzen dira hizkuntzetan, (12b) eta (12c) bezalakoak maiz, bereziki bigarrena, bestea (12c), arras gutitan (Cinque 2005). Dena den ez da hor euskarak darakutsan

⁶ Euskararen ordena duten hizkuntza guti direla dio Cinquek (2005) eta ohar batean hauek aipatzen ditu erreferentziak emanez: Mon-Kmer hizkuntza andana bat, zeltikoa, easter-islandera, hebreera, hmong, indonesiera, jacalteco, rapanui, harriehausen, wolof, kreol andana bat, watjarri).

⁷ Kontrako ikuspegia defendatzen du Pereltsvaigek (2006) hebreeraren datuak aztertuz, eta Shlonskyren (2004) kontra joanik. Lan horretan snowballing delakoaren antzeko fenomenoaren buruontzat ere proposatzen da. Hitz batean, morfologia konplexuko unitateentzat onesten ohi dena, unitate lexikalek osatu multzoei ([[[IZ-Adj]-Zenb]-Erak] adibidez) ere zabaltzen zaie. Azterbide hau ez dut segituko hemen.

⁸ Cinquek (2005) IS-igoeraren bidez azaltzen ditu (12)ko ordenak, ez buru-igoeraren bidez, aurreko lanetan bezala (Cinque 1996 2000). Ikuspegi horretan (12)ko eta (14-15)eko igoeren arteko diferentzia pied-piping delakoak egiten du: (12)ko ordena lortzeko pied-piping delakorik gabe gertatzen da IS-igoera; haren mirail irudia, aldiz, pied-piping horren ondorioa da.

Ikus dezakegunaz euskararen DSeKo ordena kontuak ederki azaltzen ditu azterbide honek, argumentu handia baita, ene ustez, euskararen gramatikan ere antisimetriari darraizkion aztermoldeek anitz onura ekar ditzaketela pentsatzeko.

3. Adjektibo metatuen ordena

Orain arte Greenbergen 20. unibertsaleko elementuen ordenaz ari izan gara, bazterrean utzirik beste zenbait osagai hala nola erlatiboak edo izenlagunak, eta kontuan hartu gabe adjektiboak bat baino gehiago izan daitezkeela IS beraren barnean. Azken puntu honen ikertzen hasiko naiz hemen, aurretik erranarekin zerikusia baitu.

Aspaldi du ohartu direla hizkuntzalariak DSetan metatzen diren adjektiboen ordena ez dela nolannahikoa, baina ordena batzuk besteak baino egokiagoak edo direla solas-neutrotasuna atxikia denean (ikus Sproat & Shih 1991 eta han ematen diren erreferentziak). Hurbileko hizkuntzetan hainbeste ikertua izan den gai hau (ikus 12. oh) guti landu dute euskal gramatikalariek, eta laster bildua da ohiko gramatiketan edo berriagoetan kontu honetaz errana izan dena –ikus Lafitte 1962:120; EGB 1984:248; Trask 2003:137; Artiagoitia 2002. Kontsidera ditzagun zenbait adibide:

- (16) a. sagar gorri lodi bat vs sagar lodi gorri bat
 b. gizon luze azkarra vs gizon azkar luzea

(16)ko adibideetan, ezkerreko aldean dira markatugabeak edo neutroagoak diren formak, eskuin aldekoak, guztiz onargarriak izanik ere, doi bat markatuagoak baitira. Badirudi (16)an bezala adjektiboak metatzen direnean, parte handi batean autoreak bat datozela euskaraz franko librokori ordena daitezkeela errateko, nahiz kasu askotan ordena batzuk besteak baino naturalagoak edo neutroagoak direla azpimarratzen duten zenbaitek.

Gogora dezagun laburzki gramatikalarien arabera zerk duen adjektiboen ordena baldintzatzen. Lafitterentzat, hanpadura jokoek eta estilistikoek dute eragin nagusia :

“ La place des adjectifs dépend de l'intention de l'écrivain et aussi de l'harmonie des mots. Généralement le dernier est le plus important, mais il arrive qu'on ajoute des adjectifs en vue d'atténuer l'impression produite par une première épithète:

gizon handi sekail gaizoa

gizon gaizo jakintsun zuzen bat ” (Lafitte 1962:120)

EGBak (1984) ere adjektiboen garrantzia aipatzen du. Ordea, garrantzi hori ez da baitezpada testuingurukoaren arabera bakarrik finkatzen, Lafittek zioen bezala, baina adjektiboen izaera semantikoaren arabera ere bai:

“Kontuan izanik adjektiboak izenari buruzko informazio gehigarria ematen digula (kolore, tamaina, luze / labur, adin etabarri buruz), gehienaz ere esan dezakegu informazio horietarik garrantzitsuen sentitzen duguna izenaren ondoan jartzen dugula. Horrela, adibidez, herri batez hitzegitean badirudi informazio garrantzitsuago dela txikia ala haundia den esatea, polita ala itsusia den esatea baino. Beraz, *herri txiki polita* esango dugu normalean *txiki* eta *polit* adjektiboak *herri* izenarekin elkartu nahi ditugunean sintagma berean.” (EGB 1984:248-9)

Hala ere, ez da horretan bukatzen kontua, EGBak argiki seinalatzen baitu aipatu ordena aise kanbia dezaketela hiztunek komunikazio egoerak hala eskatuz gero:

“norbaitek esan dezake *herri polit txikia* eta ez dugu uste gaizki dagoela esaten ausartuko ginatekeenik. (...) Beraz badirudi adjektiboen ordena subjektiboa dela. Hiztunak erabakitzen duela zein den izen bati buruz eman dezakeen informaziorik garrantzitsuena eta zein bigarren mailan gelditzen dena.” (idem)

Ikus dezakegunaz, EGBko (1984) azalpenen arabera, nahiz bestelako ordenak ere franko errazki erabil ditzakegun, ordena markatugabea badugu euskaran, adjektiboak metatzerakoan, kolore-adjektiboak tamaina-adjektiboak baino lehenago emanaz, eta azken hauek, berriz, kalitate-adjektiboen ezker aldean: I + kolore > tamaina > kalitatea. Adibidez, *eder*, *gorri* eta *handi* hiru adjektiboak IS berean modu neutroan erabilirik, haien arteko ordena markatugabea (17)koa da:

(17) auto gorri handi ederra

(17)ko ordena ingelesean aurkitzen denarekin konparatzen denean, ikus dezakegu haren mirail irudiari dagokiola:

(18) a beautiful big red car

Artiagoitiak (2002) eta Traskek (2003:137) ere euskarazko adjektibo metatuen arteko ordena ingelesean aurkitzen denaren alderantzizkoa dela seinalatu baitzuten, badirudi gure azterketa oinarri horretan finka dezakegula.

Kontu hau ikuspegi konparatibo batekin so egin dioten ikertzaileak saiatu dira, formulazio desberdinak erabilirik, halako ordena unibertsalik ez ote zen ikustera (erro barnako tradizioa du kontuak; ikus Hetzron 1978; Sproat & Shih 1991). Ezin has gaitezke hemen erabiliak izan diren irizpideen eztabaidatzen edo hizkuntza datuetan agertu diren epaimodu desberdinen aztertzen (ikus adibidez, frantsesari dagokionez, Abeillé & Godard 1999, Laenzlinger 2000, eta Bouchard 2002).

DSaren funtzio egitura konplexuaren barnean, Scottek (2002) egin du proposamen zehatzena Cinqueren (1999) bidetik (hau da, sintagmetako funtzio-islapenak hizkuntza guztietan, berdin, hierarkia beraren (erran nahi baitu, antisimetriari jarraikiz, ordena beraren) arabera, antolatuak zirela onartuz. Hona proposamen hori:¹²

(19) Adjektibo sintagmei dagokien funtzio islapenen hierarkia unibertsala (Scott 2002):

ebaluazio subjektiboa > tamaina > luze-laburra > goratasuna > lastertasuna > zabalera > pisua > tenperatura > denbora/adina > forma > kolorea > naziotasuna/jatorria > zertazkoa (materia) > IZ

Zerrenda hau ikusirik, berehala ikus dezakegu euskarari dagokionez zenbait puntu badirela argitzeko. Adibidez, izenari hurbilenik agertzen dena euskaraz *-ko* posposizioaren bidez adieraziko dugu (*harrizko, paperezko, ...*), eta naziotasuna/jatorriari dagokiona ere berdin, IZaren ezkerretik ere joan daitekeen jentilizio batekin ez bada (*Bizkaiko / bizkaitar*). Dakigun bezala, horrek ordena kontuak aldarazten ditu euskarari (Zabala 1999). Dena den, ez dugu ikerketa xehe berezia eskatzen duten gorabehera hauek hemen harrotzeko xederik.¹³ Horretaz, ontzat emanen dugu (19)ko hierarkia, adibide hauetan obratua dena (ezkerreko forma neutroagotzat joz):

- (20) a. negu hotz luzea vs negu luze hotza → temperatura > luze-laburra
 b. salda bero on bat vs salda on bero bat → tenperatura > ebaluazio subj.
 c. zaku pisu lodi bat vs zaku lodi pisu bat → pisua > tamaina
 d. bide zabal lasterra vs bide laster zabala → zabalera > lastertasuna
 e. mutiko gazte ederrak vs mutiko eder gazteak → denbora/adina > ebaluazio subj.
 f. leiho erronda handia vs leiho handi erronda → forma > tamaina
 g. eskultura fin gora bat vs eskultura gora fin bat → zabalera > goratasuna

Argiki ikus daiteke (20)ko adibideetan agerian ematen diren ordena markatugabeak (19)ko hierarkiaren mirail irudiari dagozkiola.

Gauzak hala izanik, aurreko atalean ikusirikako egituratzeak hemen ere baliagarri izan behar lukeela pentsatzekoa da. Hau da (19)koa bezalako funtzio egituratze batetik abiatu

¹² Bestelako sailkapenak ere proposatu dira adjektiboak modu zabalago batean sailkatuz; adibidez, adjektibo tematikoak (T-adj) eta adjektibo sailkatzaileak (S-Adj) bereizten dituzte Bosque & Picallok (1996), erakutsiz ingelesez eta gaztelaraz mirail irudiaren efektua badela: T-Adj > C-Adj > IZ (ing.) vs IZ > S-Adj > T-Adj (gaz).

¹³ Bibliografia zabala gaiaren inguruan, bereziki IZaren bi aldeak baliaturik datuak franko nahasiak dituzten frantsesa eta gaztelera bezalako hizkuntzetan; gaztelarentzat ikus, IZaren aitzineko adjektiboez, Bosque eta Picallo 1996, eta orokorkiago Demonte (1999) eta Bosque (1999) hango erreferentziekin; frantsesari dagokionez, ikus bereziki Abeillé & Godard (1999), Laenzlinger (2000), Bouchard (2002), Knittel (2005).

hari eman dakioken azalpena focus islapena DSaren gainetik dagoen zabalgunen nominaleko funtzio islapenen artean ezarriz (26):

(25) Pilotari gazte frantsesek dute irabazi, ez espainolek (= ez pilotari gazte espainolek)

(26) $[_{FS} \text{ Pilotari}_i \text{ gazte}_k [_{F^\circ} [_{F_{ocP}} \text{ frantses}_j [_{DS} [_{D^\circ} \text{ ak}] \dots t_k t_j t_i]]]]$

(25) adibidean focus hanpadura jatorri adjektiboari dagokio eta DSaren azken tokioan ageri da, nahiz ordena markatugabeen bestelako ordena lirakeen bi adjektiboak.

Aukera hau izanik ere ez dut uste, halere, kasu markatu guztientzat balio duen, eta menturaz beste bide batzuk ere aztertu behar lirakeke. Adibidez, ordena markatuetako eskuin aldeko adjektiboak ordena markatuetan predikatu gisa erabiltzen ez ote diren ikus daiteke. Cinquek (1994) italieraz PSen ondotik agertzen diren adjektiboen aztertzeko (*la loro aggressione all'Albania, brutale*, 'haien Albaniaren kontrako eraso bortitza'), DS egituratik kanpo uzten ditu.¹⁴ (27)an bezalako azterketa proposatzen du gisa horretako egitura predikatiboen azaltzeko, *brutale* adjektiboa Kmz° buruaren osagarria izanik, eta *la loro aggressione all'Albania* sintagma berriz DS bete gisa harturik, KmzS aren espezifikatzaile gunean:

(27)

		KmzS		
		/ \		
	DS		KmzS	
<i>la loro aggressione all'Albania</i>			/ \	
		Kmz°		AdjS
				<i>brutale</i>


Badakigu euskarak ere horrelako egiturak errazki baliatzen dituela batzuetan. Konpara ondoko adibideak:

- (28) a. Hiru zaldi eder arras merke erosi zituen
 b. *Hiru zaldi(,) eder-eder(,) arras merke erosi zituen
 c. Hiru zaldi*(,) eder-ederrak*(,) arras merke erosi zituen

(28)ko adibideetan ikus daiteke, zenbatzailedun DS mugatugabe batean adjektibo bat ingurumen mailakatazile batean erabilia denean (hemen errepikapena), beharrezkoa dela i) modu predikatiboan erabiltzea (pausa bat eginez adjektiboaren aitzinean; cf. EGB 1984: 298), eta ii) orduan, artikulua adjektiboari lotzea (DSak interpretazio mugatugabea atxikiz). Artikulua numero komunztaduraren markatzaile izanik (Artiagoitia 1998), adibide horietan

¹⁴ Adibidea Lamarcheri (1991) zor zaio. Haren bidez erakutsi nahi zuen arazoak bazirela italierako DSen egitura IZen igoeraren bidez azterkatzeko. Gogoan izan, hizkuntza erromanikoetako adjektibo (atributibo) postnominalen aztertzeko IZen igoera badelako hipotesia egiten dela.

ere, (28b,c)n bezalako egitura badugula pentsa dezakegu, bi osagaiak subjektu-predikatu erlazio batean izanik orduan, (29)n erakutsi bezala:



Galda daiteke, ildo horri jarraikiz, ea, adjektiboak ordena markatuan erabiltzen direnean ere, ez ote dugun DSaren barneko FS bat (beharbada DS baino beheragokoa) gisa horretan baliatzen, erlazio predikatiboa sortuz. Horrela pentsatzera bultzatzen du hiztun askok, adjektiboak ordena markatugabeen ematean, bigarren adjektiboari artikulua lotzeko duten joerak:

- (30) a. Bi zakur beltz itsusi bazituzten etxean (*itsusi*: ez predikatiboa)
 b. ??Bi zakur itsusi beltz bazituzten etxean (*beltz*: ez predikatiboa)
 c. *Bi zakur itsusi, beltz, bazituzten etxean (*beltz*: predikatiboa)
 d. Bi zakur itsusi, beltzak, bazituzten etxean (*beltz*: predikatiboa)

(30a) eta (30b) kontrasteak adierazten du ordena markatugabeen (30b) bigarren adjektiboa predikatu gisa erabiltzen dela, horrek ekartzen baitu, ondorioz, bigarren adjektiboan artikulua bidezko numero komunztaduraren erabiltzea, (30c,d)ko kontrasteak erakusten duen bezala.

Gauzak hala izanez gero, pentsatu behar genuke euskarazko adjektiboen ordena kontuek, alderdi deskriptibotik ere kanpo ere, interes berezia badutela DSen egituraren hobeki ulertzeko.

Aipamenak

- Abeillé, Anne & Godard, Danièle. 1999. "La position de l'adjectif épithète en français: le poids des mots." *Recherches linguistiques de Vincennes* 28, 9-32.
- Aboh, Enoch Oladé. 2004. *The Morphosyntax of Complement-Head Sequences. Clause Structure and Word Order Patterns in Kwa*. Oxford University Press.
- Artiagoitia, Xabier. 1998. "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27, 33-61.
- Artiagoitia, Xabier. 2002. "-(T)AR atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan". *Fontes Linguae Vasconum* 91, 443-462.
- Bouchard, Denis. 2002. *Adjectives, number and interfaces. Why languages vary*. Amsterdam: Elsevier.
- Bosque, Ignacio. 1999. "El sintagma adjetival. Modificadores y complementos del adjetivo. Adjetivo y participio." In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la Lengua española. I. Sintaxis básica de la clases de palabras*. Madrid: Espasa. 217-310
- Bosque, Ignacio & Carme, Picallo. 1996. "Postnominal adjectives in Spanish DPs." *Journal of Linguistics* 32, 349-385.
- Cinque, Guglielmo. 1994. "On the evidence for partial N-Movement in the Romance DP." In C. Cinque, J. Koster, J.-Y. Pollock, L. Rizzi & R. Zanuttini (arg.), *Paths towards Universal Grammar: Studies in Honor of Richard Kayne*. Washington, DC.: Georgetown University Press. 85-110.
- Cinque, Guglielmo. 1996. "The antisymmetric programme: Theoretical and Typological implications." *Journal of Linguistics* 32, 447-464.
- Cinque, Guglielmo. 1999. *Adverbs and functional heads: A cross-linguistic perspective*. New York: Oxford University Press.
- Cinque, Guglielmo. 2005. "Deriving Greenberg's Universal 20 and Its exceptions." *Linguistic Inquiry* 36-3, 315-332.
- Croft, William & Deligianni, Efrosini. 2001. "Asymmetries in NP word order." Paper presented at the International Symposium on Deictic Systems and Quantification in

Languages Spoken in Europe and Northern and Central Asia, Udmurt State University, Izhevsk, Russia.

- Demonte, Violeta. 1999. "El adjetivo: Clases y usos. La posición del adjetivo en el sintagma nominal." In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la Lengua española. 1. Sintaxis básica de las clases de palabras*. Madrid: Espasa. 129-216.
- Dryer, Matthew S. 1988. "Object-Verb order and Adjective-Noun order: dispelling a myth." *Lingua* 74, 185-217.
- Dryer, Matthew S. 1992. "The Greenbergian word order correlations." *Language* 68, 81-138.
- EGB [Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea]. 1984. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*. 1. liburukia. Iruñea: Euskaltzaindia.
- Fassi Fehri, Abdelkader. 1999. "Arabic modifying Adjectives and DP Structures." *Studia linguistica* 53, 105-104.
- Goenaga, Patxi. 2003. "-En eta -ko atzizkiez berriro." In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker 14-1*. Bilbo: Euskaltzaindia. 279-303.
- Greenberg, Joseph. 1963. "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements." In J. Greenberg (arg.), *Universals of language*. 2d edition, 1966. Cambridge, Mass: MIT Press. 73-113.
- Haddican, Bill. 2001. "Basque Functional Heads." Linguistics in the Big Apple Working papers in linguistics. <http://web.gc.cuny.edu/dept/lingu/liba/paper.html>
- Hawkins, John A. 1983. *Word order Universals*. New York: Academic Press.
- Hawkins, John A. 1984. "Modifier-head or function-argument relations in phrase structure? The evidence of some word order universals." *Lingua* 63, 107-138.
- Hetzron, R. 1978. "On the Relative Order of Adjectives." In H. Seiler (arg.), *Language Universals*. Tübingen: Gunter Narr Verlag. 165-184.
- Kayne, Richard S. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge: MIT Press.
- Knittel, Marie Laurence. 2005. "Some remarks on adjective placement in the French NP." *Probus* 17-2, 185-226.

- Lafiite, Pierre. 1962. *Grammaire basque. Dialecte navarro-labourdin littéraire*. Edition revue et corrigée. Baiona: Ikas.
- Lehmann, 1973. "A structural principle of language and its implications." *Language* 49, 47-66.
- Laenzlinger, Christopher. 2000. "French adjective ordering: Perspectives on DP-internal movement types." *CG@G (Generative Grammar in Geneva)* 1, 55-104.
- Lamarche, Jacques. 1991. "Problems for N^o-movement to Num-P." *Probus* 3, 215-236.
- Pereltsvaig, Asya. 2005. "Head movement in Hebrew nominals: A reply to Shlonsky." *Lingua*, article in press, available online at www.sciencedirect.com.
- Scott, Gary-John. 2002. "Stacked Adjectival Modification and the Structure of Nominal Phrases." In G. Cinque (arg.), *Functional Structure in DP and IP. The Cartography of Syntactic Structures*, Volume 1. Oxford: Oxford University Press. 91-120.
- Shlonsky, Ur. 2004. "The form of Semitic noun phrases." *Lingua* 114, 1465-1526.
- Sproat, Richard & Shih Chilin. 1991. "The cross-linguistic distribution of adjective ordering restrictions." In C. Georgopoulos & R. Ishihara (arg.), *Interdisciplinary approaches to language*. Dordrecht: Kluwer. 565-593.
- Trask, Larry. 2003. "The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names." In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter. 113-170.
- Vennemann, Theo. 1994. "Topics, subjects and word order." In J.M. Anderson & C. Jones (arg.) *Historical Linguistics*, I. Amsterdam: North Holland. 339-376.
- Willis, David. 2005. "Against N-raising and NP-raising analyses of Welsh noun phrases." *Lingua*, article in press.
- Zabala, Igone. 1999. "Izen-sintagma konplexuak: Adjektiboen segidak." In J.C. Odriozola (koord.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Euskal Herriko Unibertsitatea. 107-157.
- Zubiri, Ilari & Zubiri, Entzi. 1995. *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

IKER (CNRS)
28, Lormand
64100 Baiona / Bayonne
b.oyharcabal@univ-pau.fr